

Diru-laguntza



Babeslea



Lankidetzak



Agencia de Protección de Datos
de la Comunidad de Madrid



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



CLI - PROMETEO Proiektua

*Informazioaren eta
Komunikazioaren Teknologiak
Erabiltzeko Eskuliburu Praktikoa*

15 - 17 urte

Galdetegiak egin dira Hezkuntza Ministerioak eta Andaluzia, Katalunia, Euskadi, Extremadura eta Madrileko erkidegoetan, dagozkien sailek lagunduta.

CLIren Zuzendaritza-taldea:

Elkartearen Zuzendaritza.

CLI-PROMETEO proiektuaren Zuzendaritza-taldea:

Antoni Farriols, José Manuel Ferrer, José Carlos Vaquero.

Lege-aholkularitza:

Carlos Valero, Jordi Bacaria, Lola Albo, Ernesto Quílez.

Talde informatikoa:

José Manuel Ferrer, Carlos Ramón Ferrer.

Binetak diseinatzeko laguntzaile berezia:

M^a del Carmen Labarquilla.

Bestelako laguntza teknikoa:

Javier García Álvarez.

Proiektuaren Datuak Babesteko Eskuliburuak:

9-11 eskuliburua. Koordinatzaile pedagogikoa: Salustiano Asencio.

12-14 eskuliburua. Koordinatzaile pedagogikoa: Alberto Leal.

15-17 eskuliburua. Koordinatzaile pedagogikoa: Débora Caballero.

Maketazioa:

Web y Media Diseñadores s.l.

Eskuliburuaren zuzendaritza:

Comisión de Libertades e Informática.

Inprimaketa:

Centro Especial de Empleo Ponce de León.

Lege-gordailua: M-53404-2008

Erregistro zenbakia M-000781/2009

Copyright © 2008

Eskubide guztiak gordeta daude. Baimena ematen dugu eskuliburua kopiaatzeko eta edozein bitarteko bidez hedatzeko, baldin eta egileak aipatzen badira eta ez bada merkataritza erabilerarik egiten eta testuan aldaketarik egiten.

Comisión de Libertades e Informática (CLI) erakundeak Datu Pertsonalen Babesaren Oinarrizko Eskubidearen alde dihardu, pertsonak, enpresak eta erakundeak jabe daitezen zein garrantzitsua den eskubide hori.

Hala nahi duten pertsonak ez ezik, CLIren partaide dira honako erakunde hauek ere:

AI: Asociación de Internautas.

ALI: Asociación de Ingenieros e Ingenieros Técnicos en Informática.

APDHE: Asociación Pro Derechos Humanos de España.

FADSP: Federación de Asociaciones de Defensa de la Sanidad Pública.

UGT: Unión General de Trabajadores.

CLI PROMETEO Proiektua 2008/09

CLIk garatzen du CLI-PROMETEO proiektua, haur eta gazteei zuzendua, eskolatik bertatik sustatzeko informazio-teknologiaren erabilera, eta,aldi berean, datu pertsonalen babesaren inguruan kontzientziatzeko ere.

Aurkibidea

Kapitulua	Edukia	Helburuak	Jarduerak	Orr.
Sarrera.	Eskuliburuaren aurkezpena.	Motibazioa.		2
1. Interneten erabilera egokia ordenagailuan eta sakelako telefonoan.	Egin daitezkeen jarduerak eta ekartzen dituzten onura.	Bi teknologiek dauzkaten aukerak eta abantailak zein diren aztertzea.	Jarduera-proposamena. Mendekotasun-testa.	3
2. Internet gaizki erabiltzea: eduki ditzakedan arazoak.	Datu pertsonalen babesa eta pribatutasuna.	Prozedura teknikoak ezagutzea, gure intimitatearen mesedetan.	Historia, "cookieak", fitxategiak, pasahitz automatikoak ezabatzea.	6
3. kapitulua 3.1.Fitxategiak partekatzea: "birusen" erasoaldia.	Birusak, birus-kontrakoak, blokeatzaileak, suebakiak. Nahi ez den posta ekiditea ("spam").	Gure pribatutasunak jasan ditzakeen erasoak antzematea eta horiek ekiditeko baliabideak.	Fitxategiak aldatzea: irudi errearen aldakuntza.	8
3.2. Ezezagunekin geratzea: "on line" eta aurrez aurre ("itsu-itsuko hitzordua").	Beste batzuekin geratzea sarearen bidez: txatak.	Ezezagunekin harremanetan jartzea dakartzen arriskuak identifikatzea.	Nortasun bikoitzeko irudien azterketa: errealitateak iruzur egiten du.	13
3.3. Jazarpena sarean: Cyberbulling.	- Zer da? - Non gertatzen da? - Nola antzeman dezaket? "Ciberbullyng" eko kasu erreal bat.	Jazarpen kasuak antzematea eta horien kontra jokatzeko jakitea. Zenbait aholku.	Eztabaida: Nortasun- ereduak.	15
3.4. Iruzurra Interneten bidez: "phishing" teknika, erosketak Interneten bidez.	Nortasun elektronikoa.	Nortasuna babesteko hartu beharreko neurriez jabetzea.	"Phishing": kasu erreal baten azterketa.	18
4. Kapituluua. Posta elektronikoa.	Konfigurazioa eta hartu beharreko neurriak.	Posta-kontua behar besteko bermez konfiguratuzea ikastea.	Posta-kontu bat konfiguratuzea.	22
5. Kapituluua. Gure eskubideak (datu pertsonalen babesa).	Babesten gaituzten eskubideak babestea. Datu pertsonalak atzitzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubidea. Salaketa-ereduak.	Era aktiboan ezagutzea datuen babesari buruzko eskubideak.	Datuak Babesteko Bulegoaren aurrean jarritako salaketa baten kasu praktikoa.	24
6. Kapituluua. Laburpena eta ondorioak.	Guraso, hezitzaile eta legezko tutorentzako aholkuak.			31

Sarrera

ZEIN DA ESKULIBURU HONEN GAIA?

Internet, sakelako telefonoa, MP3, MP4 edo Informazioaren Teknologia (IT) izenez ezagutzen ditugunak ohikoak dira zu bezalako gazteen bizitzan. Ikerketa bat egin dugu 9 eta 17 urte bitarteko 8000 baino gazte gehiagoren artean, eta lan horretan egiaztatu dugunez, denboraren tarte handia eskaintzen diezue teknologia horiei. Adibidez, %37k diozue egunero erabiltzen duzuela Internet. Baina, dena al dakizue Informazioaren Teknologien inguruan? Egoki erabiltzen al dituzue? Badakizue zein arrisku hartzen duzuen Interneten konektatzen zaretenean? Eskuliburu honen helburua da galdera horiei erantzuna ematea. Teknologia horien inguruan duzun ezagutza eta informazioa handitu nahi dugu, izan litezkeen arriskuez ohartarazi eta horietatik babesteko baliabideak eman. Bestalde, azpimarratu nahi dizugu zein garrantzitsua den datu pertsonalak (izen-abizenak, telefonoa, helbidea, NA, zure argazkiak...) babestea. Gure pribatutasunaren alorrekoak dira, eta babestu egin behar ditugu. Arlo honetan dituzun eskubideen eta obligazioen berri ere emango dizugu, zure datuak egoki erabiltzen ikas dezazun.

NOLA KONTATUKO DIZUGU?

Eskuliburua hainbat kapitulutan dago banatuta, eta halako egitura du:

- Edukia: gaiaren inguruan behar duzuen informazio guztia emango dizuegu atal honetan. Harranta geratuko zarete ikustean zenbat gauza dauden ez dakizkizuenak Informazioaren Teknologien inguruan.
- Aholkuak: atal honetan aholkuak eta gomendioak eskainiko dizkizugu, teknologia egoki erabil ditzazun.
- Jarduera: kapituluaren bukaeran jolas bat proposatuko dizugu, ikasitakoa praktikan jar dezazun.

Eskuliburu hau sortu dugu irakur dezazun eta proposatzen zaizkizun jarduerak egin ditzazun guraso, tutore eta irakasleekin. Asko ikasiko duzue elkarrekin, eta ondo ulertzen ez duzuen guztia azalduko dizuegu.

Eskuliburuaren bukaeran bada atal bat guraso, hezitzaile eta legezko tutoreentzako aholkuak biltzen dituena.

1. Kapituluua

ORDENAGAILUAREN (INTERNET) ETA SAKELAKO TELEFONOAREN ERABILERA EGOKIA

Kapitulu honetan Interneten eta sakelako telefonoarekin egin ditzakezun jardueren zerrenda bat emango dizugu, eta zein onura ekar diezazuket. Zenbait aholku ere helaraziko dizugu, teknologiak egoki erabil ditzazun, eta, azkenik, proban jarriko zaitugu: Informazioaren Teknologien mende zaude? Egiazta ezazu mendekotasuna ote duzun kapituluaren bukaeran proposatu dizugun galdetegiari erantzunda.

ZER EGIN DEZAKEGU INTERNETEKIN ETA SAKELAKO TELEFONOAREKIN?

- **Informazioa jaso eta ikasi.** Internet entziklopedia erraldoia da. Nahikoa da Interneteko bilatzailearen batean jakin nahi ditugun kontzeptuen izenak idaztea milaka emaitza jasotzeko. Gertaera historikoak, bitxikeriak, errezetak, trukuak, gustuko abeslariaren biografia... sareak amaigabeko informazioa eskaintzen digu, ikasten jarraitzen laguntzen diguna.
- **Elkarrekin komunikatu.** Telegrama, gutuna, Gabonetako postalak... Antzineko kontuak dira, ezta? Orain, Interneti eta sakelako telefonoari esker, edonoiz hitz egin dezakegu lagun ea senitartekoekin, eta berdin dio munduaren zein tokitan gauden. Horixe da, inolako zalantzarik gabe, sareak eskaintzen digun onurarik handiena. Gainera, sareak ematen digun ustezko anonimotasunari esker, errazagoa da lotsa gainditzea eta besteekin harremanak izatea. Planeta osoko jendea ezagutu dezakegu, beste kultura eta ohitura batzuk ezagutu, eta, horren ondorioz, toleranteagoak izaten ikasiko dugu. Blogek eta foroek ahalbidetzen dute gustuko ditugun gaietarako iritzia eman dezagun. Azken finean, harremanetan jartzen eta gizarteratzen laguntzen du.
- **Dibertitu.** Sarean eta sakelakoan hainbat eta hainbat joko daude, lagunekin edo bakarrik jostatzeko. Gure trebetasunak hobetzen laguntzen digute, buru-azkartasuna proban jartzen dute eta, batez ere, lagungarriak dira dibertitu gaitzen!
- **Bidaiatu.** Oporrak etxetik tramitatu ditzakegu, eroso-eroso, eta, horrez gain, badira programa zoragarriak, munduko edozein tokitara eramaten gaituztenak ordenagailuan. Egiptoko piramideak, Askatasunaren Estatua, edo Eiffel dorrea, aulkirik mugitu ere egin gabe!

INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN ERABILERA EGOKIA EGITEKO AHOLKUAK

Zuetako %25,6k erantzun duzue egunero erabiltzen duzuela Internet. Baina, egoki erabiltzen al da? Hainbat aholku eta jarduera proposatuko dizugu, Informazioaren Teknologia egoki erabil ditzazun.

- 1. Denbora.** Garrantzitsua da kontrola dezazun zenbat denbora ematen duzun ordenagailuaren aurrean edo sakelako telefonoan. Oso tresna erabilgarriak dira, baina, dena bezala, neurrian erabili beharrekoak. Eskolak direla, etxeko lanak direla eta eskolaz kanpoko jarduerak direla, oso denbora gutxi duzu aisiarako. Eta ez ahatz familiarekin eta lagunekin ere egon behar duzula, liburuak irakurri eta gustuko musika ere entzun behar duzula. Atera, bada, kontuak eta ondo antolatu. Badago astirik dena egiteko!
- 2. Informazioa.** Erne! Interneten bada informazio asko fidagarria dena, baina gezur asko ere badabil. Sareak dioen gutzia sinetsi baino lehen, galde egiozu helduren bati edo kontrasta ezazu informazioa eskura duzun libururen batean.
- 3. Dibertsioa.** Alde egin bortizkeriaz betetako edo arazoak ekar diezazuketeko jokoetatik!
- 4. Blogak, foroak, txatak...** Izan zaitetz beti adeitsua eta tolerantia besteen iritziekiko. Ez ezazu iraindu edo mehatxurik egin, ez eta besteei kalte egin diezaiekeenik ere. Dibertitu zaitetz eta paso egin rollo txarrez!
- 5. Erosketak.** Interneten gustuko zerbait ikusi baduzu, galde iezaiezu gurasoei edo heldu arduratsu bati. Ez zaitetz fidatu eskaintza eta agindu zoragarriekin. Ez dago mirakulurik!

JARDUERA. INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN MENDEAN ZAUDE?

Zuetariko %75,4k adierazi duzuenek, Internetera konektatzen zaretenean, aurreikusita zeneukatena baino denbora luzeagoa pasatzen duzue; baina, badakizue teknologia horiekiko mendekotasuna ba ote daukazuen? Jakin ezazu proposatu dizugun testa eginda. Erantzunetako zein izango litzateke zurearen antzekoena?

- Zenbat ordu eskaintzen dizkiozu egunero Interneti?:
 - A.** Ordubete baino gutxiago. Jarduera askotan aritzen naiz eta ez daukat ia astirik Interneten ibiltzeko.
 - B.** 2-3 ordu. Gustatzen zait nire aisialdian Interneten ibiltzea, lagunekin hitz egiteko eta eskolarako informazioa bilatzeko ere.
 - C.** Egunero lau orduetik gora. Ia beti nago ordenagailuaren aurrean, jolasten, hitz egiten, interesatzen zaidan informazioaren bila...
- Zenbat "sms" bidaltzen diezu sakelako telefonotik lagunei eta familiakoei astero?:
 - A.** Bat edo bi, gehienez ere. Gauza garrantzitsuak edo une bereziak direnean baino ez.
 - B.** 3 eta 6 bitartean. Mezutxoren bat edo bidaltzen dut, eta jasotakoak erantzuten ditut.
 - C.** Astean 7 baino gehiago. Ez dakit zenbat mezu diren. Lagunak egunero ikusi arren, etengabe ari gara elkarri mezuak bidaltzen. Izugarri gustatzen zait!

3. Nola egongo zinateke Internet eta sakelako telefonoa desagertuko balira astebetez?:
- A. Astebete eta luzeago ere agoantatu dezaket Internetik eta sakelakorik gabe.
 - B. Arraro ikusiko nuke neure burua, baina astebete berehala joaten da!
 - C. Gaixotu egingo nintzateke! Zein aspergarria! Nola hitz egingo nuke lagunekin? Latza izango litzateke...
4. EZ zaudenean Internetera edo sakelakora konektatuta, ia beti...
- A. Ari naiz kirolen bat egiten, familiarekin hitz egiten, irakurtzen...
 - B. Ari naiz telebista ikusten edo ikasten.
 - C. Ari naiz pentsatzen ea noiz konektatuko naizen, ea norbaitek mezuren bat idatzi didan edo blogean idatzi duten; zain nago nabigatzen hasteko!
5. Internetera konektatuta edo sakelakoa erabiltzen ari zarenean, ia beti...
- A. Egin behar dudana egiteko baino ez ditut erabiltzen, eta gurasoek deituz gero edo beste zereginen bat baldin badaukat egiteko, berehala uzten ditut.
 - B. Dibertitzen naiz eta atsegin dut denbora-tarte batean nabigatzea; gurasoekin adosten dut denbora-tartea zenbatekoa den eta beste jarduera batzuekin tartekatzen dut.
 - C. Eguneko unerik onena da. Primeran pasatzen dut Interneten edo sakelakoarekin. Jarduera hori norbaitek etenez gero edo uzteko esanez gero, haserre bizian jartzen naiz!

EMAITZAK

- **Erantzun gehienak A izan badira: “Ez arre eta ez ixo”.** Oso praktikoa zara, eta, zure ustez, Informazioaren Teknologiak tresnak dira, bizitza errazten digutenak; hala ere, lasai asko bizi zintezke horiek gabe ere. Baduzu beste hainbat modu egiteko Interneten bidez edo sakelakoarekin egingo zenukeena.
- **Erantzun gehienak B izan badira: “Neurri-neurrian”.** “Neurrian dago bertutea” dio esaldiak, eta horrexek balio du zu definitzeko. Neurrian darabiltzazu Informazioaren Teknologia, baina ez dituzu albora uzten ikasketak edo zure familiarekin egotea. Oso ondo! Informazioaren Teknologia oso baliagarriak dira baina ez dira obsesio bilakatu behar. Jarraitu, bada, horrela!
- **Erantzun gehienak C izan badira: “Erabat harrapatuta zaude!”.** Erne ibili. Zure bizitzan ez dituzu lehenetsi behar ez Internet eta ez sakelako telefonoa ere. Konektatuta zauden bitartean alde batera uzten dituzu familiarekiko harremana eta ikasketak, eta horrek ondorio larriak ekar diezazkizuke. Teknologia horien erabilera murriztu behar duzu eta denbora hori erabili kirolean aritzeko, gurasoekin hitz egiteko, irakurri edo ikasteko.

2. kapitulua

INTERNET GAIZKI ERABILTZEA: EDUKI DITZAKEDAN ARAZOAK

GURE PRIBATUTASUNAREN BABESA: ZENBAIT AHOLKU TEKNIKO

Ikusi dugunez, Internetek abantaila handiak ditu, baina arriskuz beteta ere badago. Kalera ateratzen garenean adi ibili ohi gara diru-zorroak gal ez ditzagun edo lapurtu ez diezazkiguten; horietan edukitzen dugu identifikatzen gaituen dokumentazioa: NA, argazkiak, kontzertu baterako sarrera... finean, gure pribatutasuna babesten dugu. Eta zergatik ez dugu gauza bera egiten Interneten gaudenean? Egin berri dugun azterlanaren datuek diotenez, zuetako %45,8k badakizue ordenagailua birus-kontrakoez edo espioi-kontrakoez babestuta ote daukazuen. Gure logelen lasaitasunean salbu gaudela uste dugu, baina ordenagailua munduko amaraunera, alegia, Internetera, konektatu orduko, batere babesik gabe gaude, milioika arriskuren aurrean, eta neurri egokirik hartu ezean, ondorio larriak biziko ditugu.

ZURE ORDENAGAILUA: “ROBOT SAILKATZAILEA”

Zure ordenagailuak dena apuntatzen du, bisitatu dituzun orri guztiak gordetzen ditu, filmak, jaitsi duzun musika, Googlen edo Yahooren egindako bilaketak, posta elektronikoa, bete dituzun izena emateko orriak, pasahitzak, berehalako mezularitzan izandako elkarrizketak... den-dena. Zuk halakorik agindu ezik, behin ere ez du ezer ere ahazten, eta are okerragoa dena, informatika-ezagupen urriak dituen edozeinek den-dena jakin dezake zuri buruz, eta datu horien erabilera okerra egin. Baina goazen zatika; zure ordenagailuak dena dauka sailkatuta eta hainbat lekutan gordeta, eta datuen lapurretatik babestuta egoteko aholku informatikoak ematen hasi aurretik, ikus dezagun zer gordetzen den non:


- **Historia:** hemen gordetzen dira bisitatu dituzun web orri gehienak. Sarean uzten joan zaren “arrastoak” dira; beraz, komeni da ezabatzea, inor ibil ez dadin arrasto horien atzetik.
- **Cookieak (lorratzak):** bisitatu berri duzun orriaren helbidea duten fitxategiak dira. Batzuk aldi baterakoak dira, baina beste batzuek urteetan iraun dezakete zure ordenagailuan. Espioiek egin dezakete bisitatu dituzun web orrien jarraipena eta atzitu ditzakete zure fitxategiak; horretara, zure gustuko gaiak eta lehentasunak zein diren jakingo dute, eta, horrekin, izan litezkeen bezeroen zerrendak osatzen dituzte, enpresei saltzeko.
- **Fitxategiak:** bisitatu dituzun web orrien irudiak eta edukiak ordenagailuan gorde ohi dira, berriz ere bisitatzean zama arintzearren. Baina fitxategi horietatik abiatuta atzitu daiteke bisitatu dituzun orrietan idatzi duzun guztia. Fitxategi horiek ezabatuz gero, denbora-tarte luzeagotxo beharko da orria kargatzeko, baina espioietatik eta informatika-lapurretatik babestuta egongo zara.

Dagoeneko badakizu zer gordetzen duen zure ordenagailuak, bai eta non gordetzen duen ere. Horrenbestez, aholkatzen dizugu astero eman ditzazun bost minutu ordenagailuak gordetzen dituen datu horiek ezabatzen, lapurrek ez dezaten tokirik hartu zure intimitatean. Nola? Jarrai ezazu irakurtzen eta urrats erraz-errazak emanda babestuta egotea lortuko duzu. Internet Explorerren azken bertsioa badaukazu, oso erraza da: ireki Interneteko orri bat eta aukeratu Tresnak > historia ezabatu, eta honakoa bezalako koadro bat azalduko zaizu:

Leiho horretan ezabatu ditzakezu historia, *cookieak*, fitxategiak eta pasahitzak; nahikoa da aukera guztietan “ezabatu” klikatzea eta, hori egin ondoren, erabakia egiaztatzea.

Windows XP eta Internet Explorerren aurreko bertsioa baldin badaukazu, antzekoa da, eta oso erraza. Ireki ezazu Interneteko orri bat, aukeratu Tresnak > Interneteko aukerak, klik egin erlaitz nagusian eta ezabatu Historia, *cookieak* edo fitxategiak, eta, hori egin ondoren, klik egin “onartu”ren gainean.

Firefox 7.x baldin badarabilzu, honakoa egin beharko duzu: Editatu > Lehentasunak, klik egin Navigatorren, aukeratu Historia eta klik egin “Historia ezabatu”n. *Cookiekin* ere antzeko zerbait egin behar da. Aukeratu Tresnak > *Cookies* kudeatzailea > gordetako cookieak kudeatu eta azaltzen zaizun koadroan aukeratu ahal izango dituzu ezabatu nahi dituzunak edo, bestela, klik egin *cookie* guztiak ezabatu botoian eta onartu. Fitxategiak Firefox 7.xekin ezabatzeko, aukeratu Editatu > Lehentasunak eta klik bikoitza egin Aurreratuetan. Katxea aukeratu, eta klik egin Diskoaren Katxea Hustu botoian.



3. kapitulua


3.1. FITXATEGIAK PARTEKATZEA: "BIRUSEN" ERASOALDIA

Dagoeneko badakizu zerbait gehiago zure ordenagailuari buruz, baina oraindik ez zaude salbu, eta beste eginkizun bat daukazu: ordenagailua ez dadila bihurtu arrotzen esku dagoen zonbi bat eta babestea Interneten dauden arrisku guztietatik. Ez al dakizu oraindik zein izen duten erasotzaileek? Hurrengo lerroetan emango dizugu gaizkile horien inguruko informazioa, bai eta babestuta egoteko behar dituzun ezkutua ere:

BIRUSAK

Interneten birus izurritea dago, eta hau jakiteak harrizko egingo zaitu agian, baina sakelako telefonoan ere bai. Erraz asko hedatzen diren informatika-programak izaten dira, eta kalte izugarria eragin dezakete. Batzuetan agerian izaten dira, eta badakigu hor daudela, baina beste askotan, berriz, jaisten ditugun fitxategi edo programetan ezkutatu ohi dira, eta ordenagailuan dauden datuak suntsitu ditzakete, datuak lapurtu, argazkiak ere bai... Azken batean, zure ordenagailua beren gogara erabiliko dute, eta ordenagailua zonbia bihurtuko da. Birus mota asko dago, eta hona hemen izen batzuk, erne ibil zaitezten:

- **Stealth:** kaltegarrietako bat da, izan ere zure ordenagailuan dago eta ez zara konturatu, eta aurkitzen duen guztia kutsatzen du. Gainera, ziria sartzen dio birus-kontrakoari, datuak aldatzen baititu hark antzeman ez dezan.
- **Bizkarroia:** "exekutatu" esaten diguten programatxo horietan ezkutatua izan daiteke; badakizu zertaz ari naizen, ezta?
- **Harra:** erraztasun handiz zabaltzen da ordenagailu batetik bestera, posta elektronikoaren bidez edo berehalako mezularitzaren bidez ere.
- **Troiako Zaldia edo troiarra:** jaisten ditugun programa batzuen atzealdean gordetzen dira, eta kalterik eragiten ez dutela uste dugu. Behin programa jaitsitakoan, ordea, troiarra ordenagailuan sartzen da eta nahi duen guztia egin dezake.
- **Cabir:** sakelako telefonoaren birusa. *Bluetooth*aren bidez zabaltzen da. Zure sakelakoan sartzen bada, testu-mezuak edo kontaktuen zerrenda lapur ditzake, bai eta zure elkarrizketak entzun ere. Kontuz ibili *bluetooth* erabiltzen duzunean, eta ez ezazu ezezagunen fitxategirik onartu.



BIRUSETATIK BABESTEKO EZKUTUAK


- **Birus-kontrakoa:** Funtsezkoa da birus-kontrakoa edukitzea instalatuta ordenagailuan. Pakete horiek gure bizkartzainen antzekoak dira; beti zain daude, programa kaltegarriak ordenagailuan noiz sartuko diren eta gordeta dauden datuak noiz erabiliko dituzten zain, alegia. Horrexegatik gomendatzen dizugu, ziurrago egon zaitezenean, beti edukitzeko birus-kontrakoa instalatuta. Eta har ezazu aldiro-aldiro denbora-tarte bat hura eguneratzeko; pakete horiek iraungitze-data eduki ohi dute eta data hori heldutakoan arriskuan izango zara berriz ere.
- **Suebakia:** Edo *firewall*, ingelesez. Zure ordenagailuaren atezainak dira; inor ez da sartuko haien baimenik gabe. Zure ordenagailua kaltetu nahi duten programez eta biktima bila ibil litezkeen lapurren aurrean ikusezin bihurtzen zaituzten programez oharrazka zaitu. Zenbait web orritan izango duzu aukera doaneko suebakiak jaisteko, eta komenigarria da horietako bat eskura dezazun.

GOGORATU

Ordenagailuan edozein dokumentu, cookie edo historia ezabatu aurretik, galde iezaiezu gurasoei, kalte handiagorik ez sortzeko. Eta gauza bera egin birus-kontrakoa edo suebakia instalatu baino lehenago ere.

POP-UP LEIHOAK

Interneten beste arriskuetaiko bat dira irakurri nahi ditugun web orriaren aurrean behin eta berriz azaltzen diren publizitateko leihoak. Ez digute lasai nabigatzen uzten, konexioa moteltzen dute eta, etsita, ixten saiatzen garenean, bisitatu nahi ez ditugun beste orrialde batzuetara eramaten gaituzte. *Pop-up* leihoak dira. Leiho gogaikarri horiek behingoz bukatu nahi baduzu, jarrai itzazu ondorengo urrats hauek: ireki web orri bat, Tresnak > Interneteko aukerak > pribatutasun erlaintzera joan eta aktibatu *pop-up* leihoen blokeatzailea. Internet Explorerren zenbait bertsioek badute aukera hori, zuzenean, Tresnetan.



- *Pop-up* leihoak blokeatzeko programa bat ere eskuratu dezakezu. Aldiro-aldiri aztertu egiten dute ea zein programa instalatu den ordenagailuan zuk jakin gabe; gogaituta zauzkate beren leiho horiekin. Horrela badakizu ez zaizula berriz ere gertatuko!

ZABOR POSTA EDO SPAM

Izenak berak dioen bezala, zaborra da, eta, beraz, ez dituzu behin ere ireki behar.

Oro har, merkataritza-helburua dute, baina beste batzuetan ordenagailua kaltetu dezaketen, datuak lapurtu ditzaketen edo arazo latzetan sar gaitzaketen birusak, troiarrak edo harrak ezkutatzen dituzte.

- Nola identifikatu horiek? Posta elektronikoko zerbitzari batzuek jakinarazten digute mezua zaborra izan daitekeela, baina ez da ohikoena. Gehienetan ezezagunek bidalitakoak izaten dira, eta honako kontuak ekartzen dituzte:
 - *“Irabaz itzazu milioiak ahaleginik txikiena eginda”*
 - *“Zure bizitzako azukre koskorra zain duzu”*
 - *“Arazoak, ala? Gaurtik aurrera ez!”*



Baina ez zaitetz fidatu! Gerta liteke *spam* bat jasotzea lagun edo ezagun baten postatik, bankutik, ezaguna duzun

erakunderen batetik, bai eta zeure posta helbidetik ere, esanez mezua ez dela hartzailereenganaino

iritsi. Halako mezuek fitxategi bat ekarri ohi dute erantsita, ez ireki! Informatikaren urrezko araua bete: *“zalantzarik izanez gero, ezabatu”*.

Spammerrak (zabor mezuak bidaltzen dituztenak) gure jakin-minez edo arazoak konpontzeko dugun gogoaz baliatzen dira birusa sartzeko eta gure ordenagailua zonbi hutsa bihurtzeko. Erne egon beti, eta ez zaitetz fidatu postarekin, harik eta jakin arte toki fidagari batetik datorrela.

- Nola iristen da nire postaraino? Hainbat era daude spammerrek jakin dezaten zure posta helbidea.
 - Zure helbidea eman bazenuen foro batean parte hartzeko edo web orri batean izena emateko.

- Baliteke orriren batean izena ematean onartu izana zabor mezua jasotzea, nahiz eta ez zauden ados.
- Agian lagun bategi zure helbidea eman du, lagunei berriro bidaltzeko eskatzen duten web orri horietako batean.
- Beharbada, enpresa edo erakunde pribaturen baten datu-baseren batean lapurtu dute.
- Nork daki ez ote zaren izan ausaz posta helbideak sortzen dituzten *spammerren* biktimetako bat.
- Nola ekidin dezaket zabor posta? Zoritxarrez, ez dago modurik horrelako postarik ez jasotzeko, baina horra hor zenbait aholku praktiko ahal den neurrian horiek ekiditeko.
 - *Spamak* etengabe sartzen bazaizkizu, sor ezazu beste posta kontu bat.
 - Bigarren kontu bat eduki, web orrietan edo foroetan izena emateko.
 - Jar iezaiozu izen konplikatu zure kontuari, zenbakiz, gidoiz... hornituta. Horrela, sendoagoa izango da helbide bila automatikoki aritzen diren programen aurrean. Adibide bat: teknologia467berriak9_@babestu.com
 - Ez izenik edo daturik eman zure segurtasuna arriskuan jar dezaketen orrietan.

GERLARI INFORMATIKOAREN HAMAR AGINDUAK

1. Nire birus-kontrakoa eta suebakia instalatu eta eguneratuko ditut.
2. Ez dut fitxategi erantsirik jaitziko edo exekutatu bidaltzailea fidatzekoa dela egiaztatu gabe.
3. Ez dut izenik ez nire daturik emango seguruak ez diren orrietan.
4. Ez dut jatorri ezezaguna duen programarik jaitziko. Litekeena da kutsatuta egotea eta nire ordenagailura birusen bat ekartzea.
5. Zalantza izpirik izanez gero... ezabatu egingo dut! Postak zalantza txiki bat eragiten badit, berehala ezabatuko dut.
6. Argazkiak zintzilikatzean, erne ibiliko naiz. Beste batzuek erabil ditzakete, eta nire intimitatea urratu.
7. Mirariak agintzen dizkidaten mezuek ez didate ziririk sartuko, eta ez naute liluratuko.
8. Kontuz ibiliko naiz pen drivea (USB memoria) partekatzen badut, eta birus-kontrakoa pasatuko dut beti.
9. Ez dut irekiko edo bidaliko kate-mezurik. Pirata informatikoez darabilten teknika bat besterik ez da, helbideak eta helbideak pilatzeko eta horiei kaltea eragiteko.
10. Ez dut egingo beste inori halako kalterik eragingo liokeen ezer ere.

FITXATEGIAK ALDATZEA: IRUDI ERREALAK ERALDATZEA

ZERGATIK EZ DUZU ZURE ARGAZKIRIK ZINTZILIKATU BEHAR INTERNETEN?

Interneten zure argazkiren bat zintzilikatuz gero, edozeinek atzitu dezake, eta bere gogara erabili; barregarri utz zaitzake, edo arazotan sartu ere bai. Begira zer gertatu zitzaien mutil honi.

* Argazki hau zintzilikatu zuen Interneten



* Hauxe egin zuten argazkiarekin...

Iturria: www.youtube.com

JARDUERA. ASMA EZAZU ISTORIOAREN BUKAERA

Joko bat proposatuko dizugu: asma ezazu istorio honen bukaera. Gertaera erreal batean dago oinarrituta. Irakur ezazu arretaz eta aukeratu eskaintzen dizkizugun hiru bukaeretatik bat. Ez ezazu tranparik egin eta ez irakurri erantzuna dena amaitu arte!

Karl Schofield, 39 urteko ingeles bat, telekomunikazio arloko ingeniaria, atxilotu eta espetxeratu dute haur-pornografiako delitu batengatik. Poliziak 14 adin txikikoren argazkiak aurkitu ditu bere ordenagailuan. Aurkitu duten argazki bakoitzeko 10 urteko zigorra ezar diezaioke, hau da, guztira 140 urte kartzelan.

Zure ustez, zein da istorioaren bukaera?

A aukera: Karlek espetxe-zigorra jaso du, izan ere, argazki horiek bere ordenagailuan bazeuden, berak jaitsita izango ziren hor; ez da beste modurik; beraz, espetxera!

B aukera: Zigorra jaso eta espetxean sartu dute, baina handik urte batzuetara lagun onenetako batek aitortu du berak sartu zizkiola Karli argazkiak ordenagailuan, aurretik izandako ika-mika baten ondorioz mendeku hartu nahi izan zuelako.

C aukera: Karl errugabea da eta ez dute espetxean sartu. Abokatuek frogatu dute argazki horiek Troiako Zaldi batek sartu eta jarri zituela ordenagailuan.

ERANTZUNA

Azken erantzuna aukeratu duzu? Bada, asmatu duzu! Karl Schofield errugabea zen, erabat. Behin ere ez zituen jaitsi argazki horiek, eta pirata informatikoen biktima izan zen. Abokatuek frogatu zuten Troiako Zaldi bat instalatu zela ordenagailuan

eta hortik jaitsi zirela argazkiak, jabeak jakin gabe, posta elektronikoaren bidez, beste fitxategi bat jaisteko baimena eman zuenean. Karlek lortu zuen korapilo horretatik ateratzea, baina lana galdu zuen eta bi urte beldurgarri pasatu zituen harik eta egia jakin zen arte. Beraz, kontu serioa da, benetan, eta babesa hartu sarean konektatuta zaudenean!

(Gertaera erreala, iturri honetatik hartua: "Trojan horse defence results in child porn acquittal". Iturria: <http://www.out-law.com>. 25/04/2003).

3.2. EZEZAGUNEKIN GERATZEA: "ON LINE" ETA AURREZ AURRE ("ITSU-ITSUKO HITZORDUA")

Egin dugun azterlanean ikusi dugu Internet eta sakelako telefonoa erabiltzen dituzuela gehienbat beste batzuekin harremanetan jartzeko, txat, sakelakoaren mezu edo berehalako mezularitzaren bidez; zuetako %65,7k dioenaren arabera, txat-gelak erabiltzen dituzue lagun berriak ezagutzeko; horri gehitu diogu %69,5ek mezu laburrak bidaltzen dituzuela sakelako telefonoaren bidez helburu berarekin. Horregatik nahi dugu jakin ditzazuela ezezagunekin harremanetan hasteak zein onura eta arrisku dakarren.

BESTE BATZUEKIN SAREAREN BIDEZ GERATZEA: TXATAK

Mundua aldatu egin da, eta harremanak izateko modua ere bai. Lehen, eskolan egiten ziren lagunak, edo institutuan, edo dantzalekuan, edo, agian, opor-lekuan; orain agian Argentinako lagunak dauzkagu eta ez gara gelatik atera ere egin. Txatak eta denbora errealeko *on line* elkarrizketatzat hartzen diren erkidego birtualak ezartzen dira biren edo gehiagoren artean, eta erabiltzen dituzte adin eta gizarte maila guztietakoek, izan ere gauza on asko daukate:

- Nahi duzun guztietan norbaitekin egon zaitezke. Nahikoa da ezizena edo nick bat hartzea eta Txat batean sar zaitezke eta mundu osoko milioika lagunekin konektatuta egon.
- Beste kultura eta ohitura batzuk ezagutuko dituzu, eta horrek toleranteagoa bihurtuko zaitu zugandik desberdinak direnekin.
- Txatek eskaintzen duten anonimotasunari esker, gure lotsa eta konplexuak gainditu eta errazagoa egiten zaigu beste batzuekin harremanetan hastea.



EZEGAGUNEKIN HARREMANETAN HASTEAK DAUZKAN ARRISKUAK ANTZEMATEA ETA JOKATZEN JAKITEA

Interneten dabilzan guztiak ez dira asmo onekoak; beraz, erne ibili eta ez fidatu!

- Interneten solaskide dituzunek gezurra esan diezazukete adinari, itxura fisikoari edo lanbideari buruz. Baliteke bidaltzen dizuten argazkia ere erreala ez izatea. Argi ibili!
- Horietako asko zu baino askoz ere zaharragoak izan daitezke, eta asmo txarrez joka dezakete. Pederasten (adin txikikoei sexu-jazarpena egiten dieten adinez nagusiak) %95ek Interneten bidez ezagutzen ditu bere biktimak.
- Interneten oso erraza da gezurra esatea eta beste pertsona mota baten itxurak egitea. Oro har, adeitsuegi hartuko zaituzte; nahiz eta ez zaituzten ikusi, hitz ederrak esango dizkizute; gurasoek uzten ez dizkizuten tokietara (dantzalekuak, kontzertuak...) eramango zaituztela esango dizute. Ez sinetsi esaten dizuten guztia.
- Gehienek esango dizute *web cam*-etik ikusi nahi zaituztela, eta ez baduzu hori egiten, utzi egingo zaituzte, agian; saiatuko dira zu konbentzitzen, egin dezazun eurek ikusi nahi dutena. Ez utzi konbentzitzen eta ez ezazu bideokonferentziarik onartu ezezagunekin.
- Oso ohikoa da argazkiak edo datu pertsonalak eskatzea, adibidez, helbidea edo bizi zaren ingurua. Ez ezazu behin ere argazkirik bidali eta ez eman datu pertsonalik inori.
- Ez onartu txatean ezagututakoek bidalitako fitxategirik; agian aipatu dizkizugun birusetakoren bat eduki dezakete eta argazkiak eta datu pertsonalak lapur ditzakete. Kantuak edo bidaltzen dizkizuten argazkiak ere arriskuak izan daitezke.
- Ez zaitetz geratu sarean ezagututakoekin. Gehienetan porrota izaten dira hitzordu horiek. Batzuetan arrazoia izaten da garrantzi gutxikoa, esaterako, agian ez da fisikoki esan duen bezalakoa; baina baliteke gaiztoa eta ustela izatea, eta zu bortxatzen saiatzea.
- Hitz egin ezazu guraso edo tutoreekin Interneten bidez ezarri dituzun harremani buruz. Haiek beti jardungo dute zure mesedetan eta argibideak emango dizkizute ezagutu duzun pertsonari buruz.
- Aholku hauei guztiei muzin egin eta Internet bidez ezagututako norbaitekin hitzordu bat adostea erabakitzen baduzu, ez zaitetz behin ere bakarrik joan. Konbentzitu lagun batzuk eta joan zaitetzte denok elkarrekin.

JARDUERA. NORTASUN BIKOITZEKO IRUDIEN AZTERKETA: ERREALITATEAK ENAGAINATU EGITEN DU

Batzuetan, zuk hala uste duzun arren, ikusten duzuna ez da errealitatea. Proposatuko dizugu joko soil bat, erakusten duena errealitateak, batzuetan, engainatu egiten duela. Zer ikusten duzu irudi horietako bakoitzean? Bi pertsonalitate ikusten dituzu? Erantzunak hurrengo orrialdean daude.

A)



B)



C)



D)



ERANTZUNAK:

A irudia: Atso bat eta gazte baten profila ere ikus daitezke (atsoaren sudurra da gaztearen matraila).

B irudia: Tronpeta-jole bat eta emakume baten aurpegia.

C irudia: Nondik begiratzen duzun, untxia edo ahatea ikusiko duzu (untxiaren belarriak ahatearen mokoa ere badira).

D irudia: Irudi honetan, beltzean, pitxer edo loreontzi bat. Zuriari begiratuz gero, bi aurpegi aurrez aurre, elkarri begira.

Ondorioa: Lortu duzu irudietan bina pertsonalitate ikustea? Adibide honen bidez ikus dezakezunez, errealitateak engaina zaitzake. Txatetan ezagutzen ditugun pertsonekin ere gauza bera gerta dakiguke, alegia, gazte mozorropean atso bat izatea, edo saxo-jole bat (B irudia) baten atzean emakume baten aurpegia azaltzea. Zuhur jokatu eta ez sinetsi esaten dizuten guztia; ikusi duzunez, errealitateak, batzuetan, engainatu egiten baitu.

3.3. JAZARPENA SAREAN: CIBERBULLYNG

Azterlanean antzeman dugunaren arabera, galdetegiari erantzun dioten ikasleetatik %21,9k aitortu dute inoiz edo behin jaso dituztela irainak, iruzkin bortitzak edo arrazistak. Hori jazarpen baten hasiera izan daiteke. Jazarpena, Informazioaren Teknologien bidezkoa bada, Cyberbullyng izenez ezagutzen da. Gai kezagarria da, eta kapitulu honetan saiatuko gara hurbil zaitezten *ciberbullyngera*, errealitate triste horretara. Esango dizugu zer esan nahi duen, nola antzeman eta nola jokatu halakoetan.

ZER DA?

Ciberbullyng da erabiltzea Internet, sakelako telefonoa edo bideojokoak adiskideak edo adin bereko ezagunak gutxiesteko, horiei eraso egiteko edo tratu txarrak egiteko, gaizki esateko, iraintzeko edo mehatxatzeko.

NON GERTATZEN DA?

Ciberbullyng gertakaria aurkituko dugu txatetan, foroetan, *sms-etan*, blogetan, fotogetan, *on line* jokoetan, joko birtualetan, berehalako mezularitzako norberaren gunean, eta, konturatu gabe ere, biktima izan gaitezke informatika-ezagutzaz baliatuta norbait sartzan bada gure ordenagailuan eta manipulatzan baditu gure web kamera, edo datuak, pasahitzak eta argazkiak lapurtzen badizkigu.

NOLA ANTZEMAN DEZAKET?

Ondoren, *ciberbullyng* gertakariaren adibide batzuk emango dizkizugu, antzematen ikas dezazun:

- **Argazkiak.** beren “biktimek” Interneten, fotologean, zintzilikatuta edo ordenagailuan gordeta dauzkaten argazkiak erabili ohi dituzte, izan ere batzuetan, troiarrak edo birusak erabilia, besteen ordenagailuetan sartzen dira, eta hor dauden argazkiak manipulatu eta ematen dituzte argitara Interneten bidez, biktima lotsarazi eta umiliatzeko. Batzuetan webetan ematen dituzte argitara, itsusienari edo tuntunenari botoa emateko, adibidez, eta beren profila puntuz betetzen dute, sailkapenean aurreko tokietan ager dadin. Beste batzuetan, arma gisa ere erabiltzen dituzte, xantaia egiteko, eta esaten diote biktimari egin dezala agindutakoa, bestela argazkia Interneten aterako dutela.
- **Nortasuna ordeztea.** Beste norbaiten datuekin profilak edo web orriak editatzen dira, eta haien sexu-harremanez, maniez edo barregarri uzteko balio duen beste edozein jokaeraz fikziozko iruzkinak egiten dituzte. Biktimen izena erabilia aurkezten dira foroetan edo orrietan, eta idazten dituzte irainak, iruzkin bortitzak edo orri horietatik kanporatzea eta berriz ere ezin sartzeari ekarriko dituzten gauzak.
- **Mehatxuak.** Jazarleek erabiltzen dituzte *smsak*, posta mezuak edo bideoak biktimei mehatxu egiteko edo hura iraintzeko.
- **Intimitateari eraso egitea.** Posta elektronikoan sartzen dira eta manipulatu egiten dute: irakurri, zabor mezuak edo birusak jaso ditzaten, hainbat web orritan izena eman...

JAKIN NOLA JOKATU BEHAR DEN

Zure inguruan horrelako sintomarik antzeman baduzu, hona hemen zenbait aholku, jakin dezazun nola jokatu behar duzun eta nola geldiarazi jazarpena:

- Esaiezu guraso edo irakasleei; helduak dira eta irtenbidea aurkitzen lagunduko dizute berehala.
- Zuhur eta tentuz jokatu zure datu pertsonal eta argazkiekin, ez baitakizu nola erabil ditzaketen. Zutaz zenbat eta gutxiago jakin, askoz hobeto!
- Jakin nahi baduzu ea norbaitek ordeztu duen zure nortasuna edo zure datu pertsonalak erabili dituen zu kaltetzeko, idatz itzazu zeure izen-abizenak edo ezizena bilatzaile batean.
- Gorde itzazu jazarpenaren froga guztiak, test-mezuak, posta elektronikoak, bideoak edo berehalako mezularitzako elkarrizketak.
- Joan informatika-aditu batengana, “ziberjazarlea” identifikatzeko.

CIBERBULLYNGEKO KASU ERREAL BAT

Jazarpen mota honi buruzko informazio osoagoa eduki dezazun, kasu erreal bat azalduko dizugu. Irakur ezazu arretaz berria, eta ez ahaztu gure aholkuak bete behar dituzula eta salatu egin behar duzula zure ingurukoren batek antzekorik jasan edo jasaten badu.

Iritsi da e-bullinga: xantaia gelakideei sarearen bitartez

“Poliziak 17 urteko bi ikasle atxilotu ditu, Crevillenten (Alacant). Ikaskideei xantaia egiteko modu bitxia asmatu zuten. Bi adin txikiko horiek asmatu zuten troiar bat (birus informatikoa), ikaskideen etxeetako web kamerak aktibatzen zituena, eta ikaskideen egoerak grabatu egiten zituzten. Egoera horietako batzuk labainak ziren (adibidez, arropa erazten ari zirela).

Grabazioa lortu ondoren, mehatxu egiten zieten esanez irudiak zabalduko zituztela ikastetxeetan dirua (100-200 euro) ematen ez bazieten

Txartelak faltsutzea

Bi ikasleek informatika-ezagutza handia zuten, eta adinez nagusiak diren beste gazte batzuei lagundu zieten kreditu-txartelak faltsutzen eta Interneten bidez legez kanpoko erosketak egiten.

60.000 euroko iruzurra egin zuten”.

Iturria: www.20minutos.es 03/08/08.

JARDUERA

- Eztabaida: *Ciberbullyng* versus pertonalitate-ereduak.

Anima itzazu irakasle, ikaskide eta etxeakoak, eztabaida dezaten *ciberbullyngari* eta pertonalitate-ereduei buruz. Aukera ezazue moderatzaile bat, eta jarraitu egiozue proposatzen dizuegun gidoiari.

- Edonor izan daiteke *ciberbullyngaren* biktima, edo soilik ahulenak eta segurtasun gutxien dutenak?
- Zuen ustez, zein da ciberjazarlearen profila? Horra hor bi aukera:
 - Ondo moldatzen zaren ikaskide bat, taldean ondo ikusita dagoena, kirolean aritzen dena, nota onekoa.
 - Nota txarrak ateratzen dituen ikaskide bat, beti liskarretan sartuta dabilena, ia inorekin ez dena moldatzen eta eskolara gutxitan joaten dena.
- Ikaskide bat jazartzen duena, gaixoa da edo besteei kalte eginda dibertitu nahi duen pertsona gaiztoa?
- Zuen ustez, *ciberbullyngaren* biktima izanez gero, zer da hobe, gurasoei esatea edo isiltzea eta pasatzen uztea?
- Nolako zigorra jarriko zenioke ziberjazarle bati? Arina, gaixoa delako eta laguntza behar duelako? Edo zigor gogorragoa?

3.4. INTERNETEN BIDEZKO IRUZURRAK. "PHISING" TEKNIKA. EROSKETAK INTERNETEN BIDEZ

Pirata informatikoek badute beste modu bat zure identitateaz jabetzeko. Hizkera zibernetikoan *phising* esaten zaio. Galdetegian, zuetako %38,7k aitortu duzue sarri jasotzen duzuela nahi ez duzuen publizitatea, alegia, eskatu ez duzuen publizitatea, zuen postan sartzen dena produktuak eskaintzeko. Iruzur edo phisingaren hasiera izan daiteke hori; beraz, jarraitu irakurtzen eta ikasi nola antzeman dezakezun eta zein neurri hartu behar duzun lapur horien biktima ez izateko.

3.4.1. IDENTITATE ELEKTRONIKOA. 'PHISING' TEKNIKA

Identitate elektronikoa:

- Zer da? Zure datu pertsonalak dira, zutaz zerbait dioen guztia da, edizio digitalean besteengandik bereizten zaituena: izen-abizenak, helbidea, NA, kreditu-txartelaren zenbakia, telefonoa, jaiotze data, zure argazkiak, agenda, pasahitzak...
- Nola iristen da zure identitatea Internetera? Ziurrenik, behin baino gehiagotan, Interneteko halako edo bestelako zerbitzuak erabiltzeko eskatuko zizkizuten izena emateko. Horrek berekin dakar datuz eta datuz betetako orriak betetzea; datu pertsonalak ez ezik, zaletasunak, ideologia, erlijioa, arraza edo sexu-bizitzari buruzko datuak ere eskatu ohi dituzte. Horrela iristen dira zure datuak Internetera; zeuk eman dituzu, konturatu ere egin gabe. Erne ibili.
- Zertarako? Baliteke galdetegi horietan eman duzun informazioa ez erabiltzea xede onerako. Batzuetan, merkataritza-helburuetarako nahi dituzte. Erraza da: asko dakite zuri buruz, eta, beraz, badakite zer eta nola saldu behar dizuten. Baina, kontuz! Sarritan datu horiek eska diezazkizukete lapurtzeko! Argi bili eta ez zaitez *phising*aren biktima bihurtu. Zer den hori? Jarraitu irakurtzen eta den-dena jakingo duzu.

Sinadura elektronikoa

Interneten erabiltzeko kode pertsonala da. Egiaztagiri digitala lortu behar duzu horretarako. Sinadura elektronikoa konplexu samarra da, bi zenbakitan baitago oinarrituta: kode publikoa eta horrekin erlazio matematikoa duen kode pribatua. Elektronikoki sinatuz gero, lorratz digitala sortzen da, erabat desberdina agiri guztietan. Bigarren funtzio bati esker, lorratza kode pribatu batean zifratzen da, eta horrekin lortzen dugu sinadura elektronikoa. Sinadura jasotzen duenak kode publikoa aplikatu beharko du, ziurtatzeko originala dela eta jabeak bidali duela.

Zer da phisingaren kontu hori?

Iruzurra da, zure identitateaz jabetzea eta Interneten erabiltzea. Lapurrek trikimailuak erabiltzen dituzte posta elektronikoen bidez edo *pop-up* leihoen bidez, beren helburuak lortzearren.

Nola jabetzen dira gure datuez?

Lehenengo, posta elektroniko bidez, mezu bat bidaltzen digute guk ezagutzen ditugun Web orrietara jo dezagun, adibidez, bankua, enpresa ezagunen bat, *Facebook*, *Hi5* edo *Myspaceren* erako gizarte-sareak edo postal elektronikoak bidaltzeko orriak. Horren ondoren, esango digute mezuan azaltzen den estekan klikatzeko, eta jatorrizkoaren antzeko web orri batera joango gara. Han gaudela, edozein aitzakia erabilita, datuak eskatuko dizkigute. Web orria segurua dela uste dugunez, batere eragozpenik gabe emango ditugu datuak eta iruzurgileak erraz lortuko ditu. Gure datuak erabiliko ditu erosketak egiteko, posta-helbideak irekitzeko edo bururatzen zaion edozer egiteko ere.

IDENTITATEA BABESTEKO NEURRIAK

- Zure datuak eskatzen badizkizute zerbitzu baten truke, susmo txarra hartu, badakizu nora joan daitezkeen...
- Ez ezazu izenik eman seguruak ez diren orrietan.
- Ez erantzun informazio pertsonala eskatzen dizuten posta elektronikoko mezuei. Izen oneko enpresek behin ere ez dute pasahitzik edo informazio pertsonalik eskatzen posta elektronikoz. Era horretako mezurik iristen bazaizu, deitu ezazu erakunde horretara eta egiaztatu ezazu.
- Estekadun mezuren bat iristen bazaizu, ez klik egin estekan! Baliteke web faltsu batera eramatea eta datuak emateko zu engainatzea.
- Helbide barran helbide zuzena agertu arren, jarraitu susmo txarrarekin! Pirata informatikoek badakite horiek faltsutzen eta benetakoen itxura bera ematen. Idatz ezazu helbide barran helbidea, ziurtatzeko benetako web orrian sartu zarela.
- Web orria segurua dela jakiteko, begira ezazu ea badaukan ikonoren bat, giltzarrapo hori bat, itxita dagoena, irudikatzen duena. Hala baldin bada, horrek esan nahi du web orriak zure informazio guztia babesten duela. Egin ezazu klik bikoitza giltzarrapoan: hor azaltzen den tokiaren izena ez badator bat zauden orriaren izenarekin, web faltsu bat da.



- Hautsi katean bidaltzen dizkizuten mezuekin! “Mezu hau ez badiezu bidaltzen beste 20 laguni, bi minutuan, zoritxarra izango duzu maitasun kontuetan”. Irakurri duzu halakorik, ezta? Bada, ez ezazu ezer ere sinets; mezu horien helburu bakarra da helbideak eta helbideak pilatzea, publizitatea eta zaborra bidaltzeko.
- Jar itzazu pasahitzak zure blogera edo fotologera sartu ahal izateko; horrela ziurtatuko duzu zeuk nahi duzuna baino ez dela sartuko.
- Ezin izan baduzu ekidin eta *phisingaren* biktima izan bazara: salatu! Bada Interneteko Iruzurrak Salatzeko Zentroa; agintariekin aritzen dira lankidetzan, identitatea lapurtzen dutenak harrapatzeko.

3.4.2. EROSKETAK INTERNETEN BIDEZ

Gogora ezazu adin txikioa zarela eta ezin duzula erosketarik egin Interneten bidez. Gure azterlanaren emaitzen erakusten dutenez, nahiko argi daukazue kontu hori, izan ere zuetatik %9,4k baino ez duzue erosketak egiten Interneten bidez; baina, hala ere, asko zarete, %41,4, salerosketako katalogoak begiratzen dituzuenak. Jakin behar duzu sarean gai zoragarriak erosteko, merke erosteko ere, milioika eskaintza egiten direla, eta iruzurrak direla. Enkante edo erosteka orriak amarruz eta iruzurrez beteta daude, eta asmo bakarra dute: zure dirua eta identitatea lapurtu. Horrenbestez, adi egon eta zerbait gustatu bazaizu eta erosi nahi baduzu, galde iezaiezu gurasoei edo tutoreei, eta kontuan hartu ondorengo lerroetan ematen dizkizugun aholkuak:

- Erosketak egitekotan, enpresa serio eta izen onekoetan erosi, eta, betiere, Interneteko konexio segurua erabilia.
- Beste edozein lekutan bezala, izena emateko edo erregistratzeko eskatuko dizute; ondo aukeratu pasahitza, ez dadila erraza izan asmatzen.
- Egiazta ezazu enpresaren orri ofizialean zaudela eta ez dutela pirata informatikoez faltsutu. Egiaztatu, halaber, “https” duela hasiera, horrek ziurtatzen baitu orri segurua batean zaudela. Azkenik, egiaztatu ezazu pantailaren beheko ezkerrean giltzarra bat dagoela.
- Ez fidatu merkatuko prezioa baino merkeago saltzen dizkizuten eskaintza izugarriekin. Iragarria jartzen duenarentzat, bide merkeagoa da Internet, baina ezinezkoa da produktuak merkatuzatzea horren prezio merkeekin.
- Irakur ezazu zer dioen web horren bidez erosi duen jendeak. Argibideak emango dizkizute.
- Ez eman zure datu pertsonalik edo bankuko daturik posta elektronikoz familiarekin hitz egin gabe.
- Erabil itzazu ordaintzeko bide seguruak, hau da, produktua jaso ondoren ordaintzea ahalbidetzen dizun sistemaren bat.
- Behin ere ez erabili zure jaiotze eguna edo NA pasahitza jarri behar duzunean; oso erraz antzeman ditzakete eta arriskuan jarriko zenuke zure segurtasuna.

JARDUERA. PHISHING. KASU ERREAL BATEN AZTERKETA.

Hemen erakutsiko dizugu Interneten bidez gertatutako benetako iruzur bat.

Herritar batek halako mezu bat jaso zuen posta helbidean:

Kaixo, XXX Bankuaren erabiltzaile hori!

Arren, irakur ezazu arreta handiz honako segurtasun ohar hau. Kontuan hartuta zenbat iruzur ari dela gertatzen, erabaki dugu hileroko-hileroko zure kontuaren egiaztapena inplementatzea. Eskatzen dizugu atal guztiak betetzeko, zure identitatea egiaztatu ahal izateko. Ez badituzu datu guztiak jartzen, ezin izango dugu zure identitatea egiaztatu, eta kontua blokeatuko dugu.

Jaso ezazu gure agurrik beroena. XXXX Bankuaren segurtasun zerbitzua.

Erabiltzaile izena :

Atzitzeko kodea:

Eragiketak egiteko kodea:

Txartelaren isilpeko kodea (Kutxazainetan erabiltzen duzun PIN):

Bankuaren logotipoa azaldu da, eta mezuak erabateko ziurtasuna duela ematen du. Gure lagunak galdera guztxi eman die erantzuna, eta, batere arazorik gabe, datuak eta pasahitzak eman ditu, ez baitu nahi kontua blokeatuta gera dadin.

Zer gertatu zen horren ondoren?

Iruzurra zen. Bi lagun errusiarrek lortu zituzten, mezu elektronikoko horren bidez, biktimaren kreditu-txartelaren kode guztiak, eta 21.500 euro hartu zituzten kontutik. Zorionez, polizia lapurrak atxilotu zituen transferentzia kobratzen ari zirela inguruko herri batean.


Gizon horren lekuan izan bazina, zer egin beharko zenukeen?

Lehenengo eta behin: Mesfidati azaldu! Gure datuak eskatzen dituen edozein mezu jarri behar gaitu erre

Bigarrenik: Bankura deitu eta egiaztatu mezuan esandakoa egia dela.

Hirugarrenen: Garrantzitsuena: ez eman daturik ez eta pasahitzik ere posta elektronikokoaren bidez. Iturria: www.elpais.com.

"Dos detenidos en Gavà por estafar 21.500 euros mediante 'phising' 2000/11/12.



4. kapitulua

POSTA ELEKTRONIKOA

Oso zerbitzu erabilgarria da, ahalbidetzen duena gure lagunekin, berehala, harremanetan jartzea. Kapitulu honetan azalduko dizugu nola konfiguratu behar duzun posta elektronikoaren kontua, eta zein neurri hartu behar duzun.

KONFIGURAZIOA

1. Interneterako konfigurazioa behar duzu, bai zure ordenagailuan edo bai zure sakelako telefonoan ere.
2. Eskatu baimena gurasoei kontu bat sortzeko. Adin txikikoek ezin dute egin, baimenik ez badute.
3. Erabili gustuko zerbitzari bat posta kontua sortzeko; Interneten mordera dago: Yahoo, Hotmail, Gmail...
4. Behin zerbitzaria aukeratu duzula, ikus ezazu ea non jartzen duen izena emateko edo kontua sortzeko.
5. Zenbait datu eskatuko dizute. Eman aurretik, badakizu zer egin behar duzun egiaztatzeko toki segurua dela.
6. Aukeratu izen bat eta pasahitz bat zure helbiderako.
7. Azkenik, eskatuko dizute zerbitzuaren baldintzak eta Interneteko atari horren pribatutasunari dagozkion baldintzak onartzeko laukitxo bat markatzeko. Zer da hori? Zure eta atariaren arteko kontratu baten antzeko zerbaite da. Gomendatzen dizugu baldintza horiek zein diren irakurtzeko, horrela jakin ahal izango duzu zer zerbitzu eskaintzen dizuten, zein eskubide gordetzen duten, adibidez, zerbitzuak aldatzea eurek nahi dutenean, eta erabilera egokia izan dadin, zein urrats jarraitu behar duzun. Gehienetan, posta jasotzea ere onartuko duzu. Zerbitzari batzuek onartzen dute hori ekiditea; nahikoa da jakinaraztea ez duzula eskaintzen edo sustapenen informaziorik jaso nahi. Baina beste batzuek ez dizute halako aukerarik eskainiko.

HARTU BEHARREKO NEURRIAK

- Aukera ezazu zure datu pertsonalik (izen-abizenak edo jaiotze data) ez duen helbiderik. Txandakatu maiuskulak eta minuskulak, gidoiak jarri... piratek eta iruzurgileek nekezago asmatuko dute horrela egiten baduzu.

BAI: adibidea758NiRe_kOntu@zerbitzaria.com


EZ: nireizenetaabizenak@zerbitzaria.com

- Gauza bera egin zure pasahitzarekin. Saia zaitetz ez daitezen oso datu nabarmenak izan, hala nola, urtebetetze eguna, edo erraz asma daitezkeen hitzak.

- Ez eman zure helbidea edonori. Orain badakizu zer egin behar duzun helbidearekin.
- Mezuak lagun bati baino gehiagori bidaliz gero, gogoratu ezkutuko kopian gorde behar dituzula. Horrela, inork ez du jakingo gainerakoen helbiderik, eta, beraz, helbide horiek ez dira sarean hara eta hona ibiliko, horrek ekar lezakeen arriskua ekidingo dugu, beraz, ez baitakigu nora irits daitezkeen! *Hotmailen* bidez ezkutuko kopiadun mezuak bidali nahi badituzu, bila ezazu “CC erakutsi” (kopia) aukera eta CCO (ezkutuko kopia). Sartu hartzaileen helbideak CCO barran.




Klika ezazu eta honakoa azalduko zaizu:



Idatz itzazu helbideak CCO barran.

- Ez ireki jatorri ezezaguneko edo susmagarriko mezuetan erantsitako fitxategirik, eta ez itzazu jaitsi. Baliteke birusa edukitzea.
- Mezuren bat birbidaltzen badiozu hainbat hartzaile, ezabatu itzazu aurreko bidalketari dagozkion datuak (bidaltzailea eta hartzaileak).
- Ez birbidali mezurik katean; ez iezaezu bidea erraztu iruzurgile informatikoei.
- Behin ere ez zaitetz fidatu katean bidalitako mezuez. Sarritan ustez helburu on baten mozarropena etorri ohi dira (galdutako neska bat aurkitzeko, haur baten ebakuntzarako laguntza ematea...). Helbideak bildu, beste helbururik ez dute.
- Zurea ez den ordenagailuren batean sartuz gero, beti gogoratu desaktibatu egin behar dela laukitxo bat, hain zuzen, esaten duena “gogoratu nire kontua” edo “gogoratu nire pasahitza ekipo honetan”. Eta ez ezazu posta irekita utzi.
- Gogoratu legeak babesten duela zure posta helbidea, bai eta edozein datu pertsonal ere. Inork lapurtuz gero edo oker erabiliz gero, salatu ezazu!



5. kapitulua

GURE ESKUBIDEAK: DATU PERTSONALEN BABESA

Egindako azterlanak erakusten duenez, zuetako askok ez dakizue zein diren datuak babesteko bermeak (%39,8k ez daukazue horren berri), eta erraz asko ematen dituzue foroetan, *casting*etan, txatetan, lehiaketetan edo erkidego birtualetan. Kapitulu honetan azalduko dizugu zein eskubide duzun arlo horretan eta zein obligazio bete behar duen datu pertsonalak eskatzen dizkizun edonork. Oso garrantzitsu da hori guztia jakin dezazun, eta jakin behar duzu noiz ari diren zure intimitateari eraso egiten.

- Badakizu badela Datu Pertsonalak Babesteko Lege bat? Lege horren izen ofiziala honakoa da **ABENDUAREN 13KO 15/1999 LEGE ORGANIKOA, IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEARI BURUZKOA**.
- Zer dio lege horrek? Zer eskubide dut?

Eskubidea daukat...

- Nire datuen bilketari buruzko informazioa eman diezadaten.
- Jakiteko zertarako nahi dituzten nire datuak.
- Datuak eskatzen dizkidanaren nortasuna eta helbidea zein den jakiteko. Gehienetan, datuen tratamenduaren arduraduna edo bere ordezkaria izaten da.
- Daturik ez emateko, legeren batek behartzen ez banau.
- Nahi dudan guztietan datu horiek atzitzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko edo datu horien tratamenduari aurka egiteko zenbait egoeratan.

Datuak eskatzen dizkidanak behartuta daude...

- Nire datuen segurtasuna bermatzera, eta ezin dituzte galdu, manipulatu, edo ekidin behar dute inork atzitzen dituela baimenik gabe.
- Datuak tratatzeko nire baimena eskatzera.
- Nire datuen erabileraz egiten dizkiedan galdera guztiei erantzutera.
- Nire datuak direla eta, sekretu profesionala gordetzera, bai eta gure arteko harremana bukatu bada ere.
- Hala eskatzen badut, datuak deuseztatzeko edo aldatzeko 10 eguneko epean.
- Nire datuak ez erabiltzera eskatu zizkidanenean adierazi zidaten beste helburu baterako.
- Nik, berariaz, baimenik eman gabe, nire datuak ez ematera edo saltzera hirugarrenei.
- Fitxategi bat sortzera eta jakinaraztera Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

Bereziki babestutako datuak Datu samurrak izenez ezagunak direnak

- Ezin zaituzte inola ere behartu ideologiari, erlijioari, sinesmenei, arraza-jatorriari edo bizitza sexualari buruko daturik ematera.

Aurreko ataletan adierazitakoa ez da aplikatuko...

- Datuen tratamenduaren helburua historikoa, estatistikoa edo zientifikoa bada (adibidez, zentsua eta errolda).

JAKIN BEHAR DITUZUN ZENBAIT DEFINIZIO

Datu pertsonalak

Ezagutarazten eta besteengandik bereizten gaituztenak dira: izen osoa, Nortasun Agiria, etxeko helbidea, norberaren irudia jasotzen duen argazkia, bideoa edo filma, edozein tresnatan grabatutako ahotsa, eskuko hatz-aztarnak, gure gorputz eta buru egiturari edo osasunari buruzko datuak, gure ideologia, erlijioa, sinesmenak, sexu-joera zein diren erakusten dutenak eta beste zenbait gutxiago erabiltzen direnak edo garrantzi gutxiago dutenak.

Pertsonak gara

Denok dugu eskubidea geure datu pertsonalak, gureak eta beste inorenak ez direnak, inori ez jakinarazteko, bat etorrira, besteak beste, Konstituzioarekin eta hori garatzen duten legeekin, adibidez, **ABENDUAREN 13KO 15/1999 LEGE ORGANIKOA, IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEARI BURUZKOA**. Lege horiek bermatzen digute datu pertsonalak babesteko eskubidea, bai eta ohorea, intimitate pertsonal eta familiarena eta gure datuen zirkulazioa ere.

Konstituzioak eta legeek babesten dituzte gure datu pertsonalak baita guk geuk jakinarazi ditugunean ere eta argitaratuta, guk baimenduta edo gure baimenik gabe, badaude ere bai; eta ahalbidetzen digu gure datuen erabilera eta zirkulazioa egokia dela kontrolatzea.

Arau Orokorra

Arau orokorra da denok garela norberaren datu pertsonalen jabe eta ez gaudela behartuta horiek ematera. Erabili nahi dituenak baimena eskatu beharko digu, hau da, gure baimena beharko du.

Salbuespena

Gure datu pertsonalak ematera behartuta egongo gara Lege batek argi eta garbi hala adierazten badu eta helburu jakin baterako bada. Adibidez: Erregistro Zibilaren Legeak gurasoak behartzen ditu seme-alaba jaio berrien datuak ematera, fitxategian gordetzeko, identifikatu ahal izateko eta herritartasuna eman ahal izateko.

ZURE DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEAK

Informazio eskubidea

Datu pertsonalak eskatzen badizkizute, ahoz edo idatziz, eskubidea duzu informazioa jaso dezazun datu bilketaz, horren helburuaz, datuak ez emateak ekar ditzakeen ondorio negatiboez, zure datuak edukiko dituen fitxategia non egongo den jakiteko edo fitxategiaren arduraduna nor izango den jakiteko ere. Horrez gain, honako eskubide hauei buruzko informazio espezifikoa ere eman beharko dizute:

Erabateko isiltasuna: inola ere ezin zaitu inork behartu zeure ideologia, erlijio edo sinesmenei buruzko daturik ematera. Ez da legerik halakorik ematera behartzen duenik.

Berariazko baimena: 14 urtetik gorakoa bazara, zure berariazko baimen idatzia behar da, nahitaez, zure ideologia, erlijio, sinesmen, sindikatu afiliazio, arraza, sexu-bizitza edo osasunari buruzko datuak eskatu eta erabiltzeko; eta tratatzekotan, Legeren baten baimendu beharko du berariaz hala egin daitekeela interes orokorrerako arrazoiak badirelako eta helburu jakin baterako delako edo zure baimenaz.

Atzitzea: beste batzuek gordeta edo jasota dauzkaten zure datuak eta datu horiek nori jakinarazi edo eman zaizkion (zutaz eta fitxategiko arduradunetz gain) jakiteko aukera, legeak, zenbait fitxategi ofizialen kasuan, ezarrita dauzkan salbuespenetan izan ezik.

Zuzentzea: datuak okerrak, osatu gabeak edo zehaztasun gabekoak badira, eskubidea duzu horiek zuzen ditzaten.

Deuseztatzea: berdin-berdin duzu eskubidea zure datu pertsonalak blokeatu, deuseztatu edo behin betiko ezabatu ditzaten. Jaso ziren helbururako datu gehiegi, desegokiak edo lekuz kanpokoak badira.

Aurka egiteko: eskubidea duzu aurka egiteko beste batzuek zure datuak erabiltzeari eta inori uzteari edo emateari; halaber, eskubidea daukazu zure datuen tratamendu hutsean oinarrituta zure nortasunari buruzko balorazioei aurka egiteko.

Norbaitek zure datuak baditu, zuk jakin gabe eduki ere, eta horiek erabiltzeko asmoa badu, aldeaz aurretik jakinarazi beharko dizu badela fitxategi hori, eta non dagoen, zer daukan, nor den arduraduna, zein den datuen jatorria edo nola lortu zituen, nola atzitu ditzakezun, erabiltzeari aurka egin diezaiekezula, edo zuzendu edo deuseztatu ditzakezula ere. Ez da jakinarazteko obligaziorik izango legeren batek hala agintzen badu, zure datuak tratatuko badira helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako, edo edozein arrazoiengatik ezinezkoa bada zuri jakinaraztea.

Segurtasuna eta sekretua: erregistroaren eta datuen tratamenduaren arduradunak eta berarentzat lan egiten dutenek erabat isilpean gorde beharko dituzte datuak, eta fitxategi seguru batean eduki beharko dituzte gordeta, inork ez ditzan erraz atzitu.

OHAR GARRANTZITSUA: datu bilketa idatziz egiten bada, galdetegien edo bestelako inprimakien bidez, argi eta garbi azaldu beharko dira paperean azaldu ditugun eskubide guztiak, idazten hasi aurretik lasai-lasai irakurtzeko aukera eduki dezazun, eta, ulertu dituzula ziurtatu ondoren, egin dezazun zuretzat komenigarria dena. Interneten kasuan, arreta handiz irakurri zein diren zerbitzuaren baldintzak eta pribatutasun politika. Galdetegien bukaeran era honetako esaldiak azaldu beharko lirateke:


“Datu pertsonalak jaso eta tratatuko dira (...) fitxategian, eta helburu du (...); fitxategia inskribatuta dago Datuak Babesteko ...Bulegoaren Datu pertsonalen Fitxategien Erregistroan, eta laga ahalko zaizkio (...), Legeak aurreikusitako beste lagapen batzuez gain. Fitxategiaren arduraduna da (izena eta helbidea)” ...

Orain ariketa praktikoa bat proposatuko dizugu eskubide hauek aplikatzeko aldera. Interneten aurkitutako kasu bat aztertuko dugu.

Hurrengo urtarrean telebistako “Aukera bat zure esku” saioaren 5. edizioa hasiko da. Castingera aurkezteko izena emateko orri hau bete eta Interneten bidez bidali behar duzu.

IZENA EMATEKO ORRIA

Gaur egungo argazkia, eta adierazi pisua, altuera eta neurriak (emakumezkoa bazara).



Izen-abizenak:

Jaiotze data: NA edo pasaporte:

Egoera zibila:Sakelako telefonoa:

E-mail:

Gaur egungo lanbidea (adierazi ea ikasten ari zaren, lanean edo langabezia):

Gurasoen izena eta NA:Arraza:

Daukazun gaixotasun edo alergiak:Erljioa:

Joera sexuala (heterosexuala edo homosexuala)

Prest egongo zinateke...?:

• ilearen kolorea aldatzera	BAI	EZ	BALDINTZA(K) ZEIN D(IR)EN
• ilea moztera	BAI	EZ	BALDINTZA(K) ZEIN D(IR)EN
• bainujantzia desfilatzera	BAI	EZ	BALDINTZA(K) ZEIN D(IR)EN
• erdi biluztera (<i>topless</i>)	BAI	EZ	BALDINTZA(K) ZEIN D(IR)EN
• egunean zehar grabatua izatera, jakin gabe noiz gertatzen den	BAI	EZ	BALDINTZA(K) ZEIN D(IR)EN
• Onartuko zenuke grabatutako eta Globo Tour TVk hautatutako irudi horiek telebistan ematea?	BAI	EZ	BALDINTZA(K) ZEIN D(IR)EN

Zaletasuna:

.....

.....

Adieraz ezazu ea lehenago aurkeztu zaren telebistako beste saioen batera, eta zein katetan.

.....

Aukeratzeko probak bukatutakoan, gure web orrian argitaratuko dira GLOBO TOUR RTV S.A. Barcelona enpresak aukeratutakoen izena, NA eta posta helbidea.

*Casting*ean izena emateko orri hori irakurri ondoren, erantzun iezaiezu honako galdera hauei:

1. Prest egongo zinateke *casting* horretara aurkezteko? Arrazoitu zure erantzuna.

.....

.....

2. Datu horiek eskatuta, zein helburu du enpresa horrek?

.....

3. Zein datu uste duzu ez dela beharrezkoa helburu horretarako? Zerrenda itzazu eta arrazoitu erantzuna.

.....

SALAKETA DATUAK BABESTEKO BULEGOAREN AURREAN

Zure ustez inoiz edo behin ez badira bete datuak babesteko eskubideak, eskuliburu honetan azaldu dizkizugunak, salaketa jarri beharko duzu legea bete dadin eta zure datuak ez ditzaten desegoki erabili. Horretarako, salaketa-orria aurkeztu beharko duzu.

Orri horrek honakoak jaso beharko ditu:

- Dagokionaren izen-abizenak, eta adin txikikoa bada, ordezkatzeko duenarenak.
- Gertakariak, arrazoiak eta eskaera zehatza.
- Tokia eta eguna
- Eskatzailearen sinadura.
- Zein organori zuzentzen zaion.
- Salaketa justifikatzeko agiriak.



Bete ezazu, guraso edo irakaslearekin batera, ondoren eskaintzen dizugun salaketa ereduak:

SALAKETA DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO BULEGOAREN AURREAN

Datu Pertsonalen Babesa

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean egindako salaketa

Abizenak

Izena NAN

Kalea..... Zk. Pisua

HerriaLur. Histor..... Posta Kod.

Tel..... Posta elektronikoa.....

Legezko ordezkariaren datuak (adin txikikoen edo ezinduen kasuan)

Abizenak

Izena NAN

Fitxategiaren ustezko arduradunaren datuak

Organo Arduradunaren izena

Kalea..... Zk. Pisua

HerriaLur. Histor..... Posta Kod.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari honako gertakariak jakinarazten dizkiot:

.....

.....

Erantsi den dokumentazioa:

.....

.....

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren esku-hartzea eskatzen dut, datuen babesari buruzko araudian ezarritakoaren arabera, eta aipatutako araudian ezarritakoaren aurkakoa den egoera hori eragoztearren, egoki deritzon egiaztapenak egin ondoren, prozedura zehatzaileari ekiteko erabakia har dezan.

Tokia eta eguna

Eskaeragilearen sinadura

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ZUZENDARI JAUNA Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3º - 01008 Vitoria – Gasteiz

Salaketa jartzeko tokia: www.avpd.es

Sortuta dauden Datuak Babesteko gaienerako bulegoetan ere jar daitezke salaketak. Honako web orrietan daude:

- Katalunia: "Agencia Catalana de Protecció de Dades" www.apd.cat
- Espainia: "Agencia Española de Protección de Datos" www.agpd.es
- Madril: "Agencia de Protección de Datos de Madrid" www.apdcm.es

6. kapitulua

LABURPENA ETA ONDORIOAK

Azterlanean izan duzuen parte hartzeari esker egin ahal izan dugu Eskuliburu hau. Zuek emandako erantzunek erakutsi digute bidea, eta horien arabera aukeratu ditugu gaiak. Erakutsi digute nola erabiltzen dituzuen Internet eta sakelako telefonoa: Testu honen bidez Informazioaren Teknologietara hurbilarazi nahi zintuztegun, onurak ez ezik, arriskuak ere zein diren jakin dezazuen, eta, bide batez, babesteko eta jokatzeko urratsak zein diren jakin dezazuen.

Hurrengo lerroetan aholkuak eskainiko dizkiegu guraso, hezitzaile eta legezko tutoreei. Ea baliagarriak diren.

Guraso, hezitzaile eta legezko tutoreentzako aholkuak

OROKORRAK

1. Saia zaitetz egunean egoten Interneten eta sakelako telefonoen kontuetan. Teknologia horiei buruz zenbat eta informazio gehiago izan, orduan eta gehiago lagundu ahalko diezu ondo erabil ditzaten.
2. Hitz egin sarri Interneten egiten dutenari buruz, norekin hitz egiten duten edo zein web orritan ibiltzen diren sarrien. Ezar itzazue denon artean teknologiak erabiltzeko eta kontsumitzeko oinarrizko arauak.
3. Komeni da ordenagailua etxean denok erabiltzen dugun toki batean egotea.
4. Kontrolatu zenbat denbora pasatzen duten seme-alabek Interneten edo sakelako telefonoan. Ezarri ordutegiak, bat etor daitezzen ikasteko ordutegiekin.
5. Sustatu familia-jarduerak eta anima ezazu egin dezan kirola, antzerkia edo beste jardueraren bat, ordenagailuarekin edo sakelako telefonoarekin egin behar ez dena.


INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN ERABILERARI BURUZ

6. Instalatu itzazu ordenagailuan birus-kontrakoa, suebakia eta zabor mezua iragazteko programak, eta eguneratu itzazu aldiro-aldi.
7. Presta itzazu hasierako saio pertsonalizatu bana seme-alabentzat.
8. Konfigura ezazu zure kontua administratzaile gisa, kontrolatzeko erabiltzaile guztiek zer egin dezaketen eta zer ezin dezaketen egin.
9. Konfigura ezazu seme-alaben kontua Interneteko arriskuetatik babesteko. Sistema eragile guztietako Interneten esploratzaileetan bada gurasoek kontrolatzeko **aukera- Tresnak > Interneteko aukerak > Edukia atalean aurkituko duzu.**

Guraso-kontrola aukeran klik egin eta zure seme-alabentzat desegokitzat jotzen dituzun joko batzuk desaktibatu ahal izango dituzu; horrez gain, astero edo egunero jasoko duzu seme-alaben kontuetako jardueraren berri.


Edukien Aholkularitza aukera ere izango duzu. **Sailkapen** erlaitzean, kurtsorea erabilita, adierazi ahal izango duzu zein maila onartzen duzun zure seme-alabentzat, Internetera sartzen direnean, sexu, beldur, biluztasun edo hizkera zikinari dagokienez (mailarik zorrotzena 0 da, ezkerretara dagoena).

10. Sortu ezazu web orrien zerrenda bat. Zerrenda horretan azalduko dira zure seme-alabek nahi dutenean bisitatu ditzaketen tokiak, edo inoiz ere bisitatu ez ditzaketenak ere. Horretarako, **Edukien Aholkularitza** aukeran, **onartutako tokien** erlaitzera joan. Idatzi aukeratu duzun web orria eta aukeratu "Beti" edo "Inoiz ere ez".






11. Sortu pasahitz bat, zure seme-alabek ez dezaten aukerarik izan egin duzun konfigurazioa aldatzeko eta sar daitezten arriskutsutzat daukazun tokietara. Horretarako, joan **Orokorra** erlaitzera, **Edukiaren aholkulariaren** aukeran. Seme-alabak are gehiago babestu nahi badituzu Interneten daudenean, badira merkatuan programak segurtasuna areagotzeko eta hainbat konfigurazio mota ahalbidetzen dutenak.

12. Jakinaraz iezaiezu seme-alabei Txatak zein gauza onak dituen, baina, bestalde, adieraz iezaiezu arrisku larriak ere badirela, adibidez, ezezagunekin geratuz gero. Zure seme-alabek mezuak bidaltzen badituzte edo txal-geletara sartzen badira, bideojokoetan aritzen badira *on line* edo hasierako erabiltzaile izena eskatzen duen beste edozein jarduera egiten badute, lagun iezaiezu izen hori aukeratzeko eta egiazta ezazu pasahitz seguruak darabiltzatala, ez dituztela inorekin partekatzen eta ez dutela bestelako informazio pertsonalik ematen.



Merkatuan hainbat programa dago segurtasuna bermatzeko eta edukiak iragazteko aukera gehiago eskaintzen dituztenak.

13. Begira ezazu arretaz ea zein joko jaisten duten edo lagunekin trukatzeko duten. Ziurtatu egokia dela bere adinerako eta ez duela bortizkeriarik.
14. Lagundu seme-alabei programak, musika edo fitxategiak jaitsi behar badituzte, nahiz eta legezkoak izan. Erakutsiezu ez dutela urratu behar egile-eskubideen legea fitxategiak partekatzean edo web batetik testuak, irudiak edo marrazkiak hartzean ere.



DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZ

15. Azal iezaeizu seme-alabei zein garrantzitsua den datu pertsonalak babestea. Eskuliburu honetan jaso ditugun herritar gisa Datu Pertsonalen Babesaren legediaren aldetik babesten gaituzten eskubideak, bai Estatuan eta bai autonomia erkidegoan ere.
16. Erakutsiezu seme-alaba nerabeei ez dutela zure baimenik gabe informazio pertsonalik eman behar posta elektronikoa, txat-gelak, berehalako mezularitza erabiltzen dituztenean edo erregistratzeko edo norberaren profilari buruzko galdetegiak betetzen dituztenean edo lehiaketa *on lineren* batean parte hartzen dutenean.

GAZTEENTZAKO AHOLKUEN LABURPENA

- Kontrola ezazu ordenagailuaren aurrean edo sakelako telefonoarekin pasatzen duzun denbora. Ez ahaztu ikasi ere egin behar duzula, bai eta familiarekin egon ere.
- Izan zaitetz beti adeitsua eta tolerantia besteen iritziekiko, blojetan, foroetan edo txatetan.
- Argi ibili Interneten bidez egiten dituzten eskaintza zoragarriekin. Zerbait aurkituz gero, Interneten bidez erosiko zenukeena, esaiezu gurasoei edo heldu arduratsu bati.
- Zure intimitatea babesteko, gogoratu aldiro-aldiro ezabatu behar dituzula historia, *cookieak* eta ordenagailuko fitxategiak.
- Instala itzazu ordenagailuan birus-kontrakoa eta suebakia, birusetatik eta troiarretatik babesteko. Gogoratu sarri eguneratu behar direla bertsioak.
- *Pop-up* leihoek trabarik egin ez diezazuten, blokea itzazu eskuliburuan eman dizkizugun aholkuei jarraituta, edo lortu ezazu *pop-up* leihoak blokeatzeko programa bat.
- Ondo aztertu zure helbidera iristen diren mezu elektronikoak; fitxategi erantsi bat baldin badaukate, ezezagunen batek bidali badizu edo bidaltzaileak agindu sinestezinak egiten badizkizu, komeni da ireki aurretik ezabatzea; litekeena da zabor mezua edo *spama* izatea.
- Jar iezaeizue izen konplikatuak zure kontuari, zenbakiz, gidoiz... hornituta. Horrela, sendoagoa izango da helbide bila automatikoki aritzen diren programen aurrean. Adibide bat: teknologia467berriak9_@babestu.com. Egin gauza bera pasahitzarekin
- Kontuz ibili Interneten argazkiak zintzilikatzen badituzu, badakizu asmo txarreko piratek erabilera gaiztoa egin dezaketela eta.
- Zuhur jokatu Txat batera konektatzen bazara. Ez ezazu zure edo zure gurasoen daturik eman, eta ez bidali argazkirik ezezagunei. Saia zaitetz ez geratzen Interneten ezagutu dituzunekin, eta hala ere, geratzea erabakiz gero, ez zaitetz bakarrik joan.
- Datu pertsonalak babesteko eta sarean iruzurrik egin ez diezazuten, ez ezazu izenik eman (erregistratu) ziurrak ez diren orrialdeetan, eta ez erantzun informazio pertsonala eskatzen duten mezu elektronikoei; eta ziurta ezazu zauden orria originala dela.
- Uste baduzu zure datuak desegoki erabili direla, gogora ezazu badituzula eskubide batzuk, eta badela Datu Pertsonalak Babesteko Legea, babesten zaituena; beraz, ez izan zalantzarik agintarien aurrean salatzekote ampara, así que no dudes en denunciarlo a las autoridades competentes.

CLI PROMETEO 2008-09 PROIEKTUAN PARTE HARTU DUTEN IKASTETXEEN ZERRENDA

ANDALUZIA

I.E.S. Aurantia	Almería
I.E.S. La Janda	Cádiz
I.E.S. Cárbula	Córdoba
I.E.S. Villanueva del Mar	Granada
I.E.S. Delgado Hernández	Huelva
I.E.S. Iulia Salaria	Jaén
I.E.S. Martín Rivero	Málaga
I.E.S. Néstor Almendros	Sevilla

KATALUNIA

C.E.I.P. Jacint Verdaguer	Barcelona
C.E.I.P. Pere Vila	Barcelona
Col·legi Lestonnac	Barcelona
Escola Thau	Barcelona
I.E.S. Salvador Espriu	Barcelona

EUSKADI

C.E.P. Angel Ganivet-Izarra-Sta. Lucia LHI	Araba
C.E.P. Lateorro LHI	Araba
C.E.P. Atxondo LHI	Bizkaia
C.E.P. Barrutia LHI	Bizkaia
C.E.P. Derio LHI	Bizkaia
C.E.P. Maestro Zubeldia LHI	Bizkaia
C.E.P. San Gabriel LHI	Bizkaia
C.E.P. Urretxindorra LHI	Bizkaia
C.E.P. Velázquez-M.Cervantes LHI	Bizkaia
C.E.P. Zaldupe LHI	Bizkaia
I.E.S. Ategorri BHI	Bizkaia
I.E.S. Balmaseda BHI	Bizkaia
I.E.S. Barrutialde BHI	Bizkaia
I.E.S. Bengoetxe BHI	Bizkaia
I.E.S. Derio BHI	Bizkaia
C.E.P. Aitor Ikastola LHI	Gipuzkoa
C.E.P. Harri Berri Oleta LHI	Gipuzkoa
I.E.S. Egape Ikastola BHI	Gipuzkoa
I.E.S. Lezo BHI	Gipuzkoa

EXTREMADURA

C.E.I.P. Ntra. Sra. de La Caridad	Badajoz
Colegio Claret	Badajoz
I.E.S. Sáez de Buruaga	Badajoz
I.E.S. Tamujal	Badajoz
I.E.S.O. Vía Dalmacia	Cáceres

MADRID

Colegio Sagrado Corazón	Madrid
I.E.S. Cervantes	Madrid
I.E.S. Isabel La Católica	Madrid
I.E.S. José de Churriquera	Madrid
I.E.S. Prado de Santo Domingo	Madrid



Comisión
de Libertades
e Informática

C/ José Ortega y Gasset 77, 2ªA - 28006 Madrid

Tels. 914 023 204 · 915 237 566 · Fax 915 238 621

secretaria@asociacioncli.es · www.asociacioncli.es